

LAZARRAGA SARIAK 2024 – VIII. edizioa

Oinarriak

Xedea: Lazarraga Sarien helburua Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean hainbat erakundek eta pertsonak esparru sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzeko eta ezartzeko egin duten lana saritzea da.

Parte-hartzaileak: Lazarraga sarietarako hautagai izan ahalko dira zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten erakundeak edo pertsona fisikoak. Kanpo geratzen dira sektore publikoko erakundeak.

Sariak

1. Lazarragaren eskuizkribuaren 5 ale izango dira irabazle ateratzen diren hautagaietarako sariak.

2. Guztira, bost sari ezartzen dira, bai erakundeentzat, bai pertsona fisikoentzat.

Irizpideak: Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean euskarak eremu sozioekonomikoan duen presentzia ezartzeko eta areagotzeko egindako lana baloratuko da. Eremu sozioekonomikoan egindako euskararen kudeaketa baloratzeko, kontuan hartuko dira bi irizpide hauek:

— Zer neurri ezarri diren zerbitzua euskaraz emateko.

— Zer neurri ezarri diren lana euskaraz egiteko.

Era berean, euskara eremu sozioekonomikoan sustatzearekin zerikusia duten neurriak kontuan hartuko dira, alor hauei dagozkienak: hizkuntza gaitasuna, erakundearen irudia, kanpo komunikazioa, barne komunikazioa zein lan tresnak eta pertsonen kudeaketa. Baliabideei dagokienez, honakoak baloratu dira: euskaraz lan egiteko baliabideak, kontratazioak, barne agiriak, produktua kontsumitzen eta erabiltzen duten pertsonentzako elementuak, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egitea enpresetan, formazioa euskaraz eskaintzea, etab.

Prozedura eta epea

1. Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean bizi diren pertsona fisiko edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaitzak. Emandako informazioa eta egindako proposamenaren motibazioa baloratuko dira, eta, horretarako, informatikazko edo ikus-entzunezko edozein euskarri aurkeztu ahal izango da, erakunde edo pertsona hautagaiaren ekintzak erakusteko.

2. Hautagaiak aurkezteko epea urriaren 30ean bukatuko da. Proposamenak Bai Euskarari Elkarteari helarazi beharko zaizkio.

E-postaz:	Online inprimakia:
Gaian “VIII. Lazarraga Sariak” jarri beharko da, eta honako helbide elektronikora bidali ahal izango dira: lazarragasariak@baieuskarari.eus	Aukera emango da inprimaki digital baten bidez ere aurkezteko. https://baieuskarari.eus/eu/galdetegi-berria/2024/lazarraga-sariak-2024
Sare sozialen bidez:	
Sare sozialak erabilia aurkeztu ahal izango dira hautagaiak #LazarragaSariak2024 traola erabilia. Testu, argazki edo bideo bidezko formatuan joan ahal izango dira.	
Sare sozial hauetatik bidali ahal dituzue zuen proposamenak: X (Twitter), Instagram, Facebook, Mastodon, LinkedIn, YouTube, Tik Tok eta @BaiEuskarariElkartea aipatzea eskertzekoa izango da.	

Epaimahaia eta erabakia

1. Bai Euskarari Elkarateak kudeatuko du eta “Lanabes” ekimena osatzen duten kideek osatuko dute epaimahai hori (<https://euskaraba.eus/eu/lanabes>). Epaimahaiak erabakitakoa helaraziko zaie sarituei gala izan baino lehen.

2. Epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du.

3. Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Urtez urte

Hauek izan dira aurreko edizioetako saridunak:

- [2022](#): Biosasun, Errota Hartz Klinika, Angostoko kanpina, Emaize Sexologia Zentroak eta EBA SL.
- [2020](#): ARTgia Sorgune Aretoa, ASASAM elkarte, Uriarte Industrial, Museo del Órgano jatetxe begetarianoa eta Bertako Igogailuak.
- [2018](#): Aiaraldea Kooperatiba Elkarte, Trebiñu Sagardotegia, Baiona Hartz Klinika, Gamarrako Ostalaritza eskola eta Paul Urkijo.
- [2016](#): Adigrafik, Txema Pascual, Etxeko Baratza, Lautada Bizirik eta Ciudad Jardín.
- [2014](#): Besa upategia, Electra Vitoria, Oreka IT, Agirre Lekue botika eta Aner Garmendia.
- [2012](#): Abel Enbeita, Cuadrabus, Gometegui, Assa Ikastola eta Villa Lucía.
- [2010](#): Kepa Mendia, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, JEZ Sistemas Ferroviarios, Skunk Funk eta Launa Upategia.